

**KONTSULTA PUBLIKOA, HONAKO FORU AGINDU HONEN PROIEKTUA
PRESTATU AURREKOA: FORU AGINDUA, Hezkuntzako eta Kulturako
kontseilariaren apirilaren 25eko 161/2001 Foru Agindua aldatzen duena. 161/2001
Foru Aginduaren bidez, APIRILAREN 14KO 96/1997 FORU DEKRETUA
GARATZEN ZEN, ZEINAREN BIDEZ NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO
ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZUKO
LANGILEEN LANBIDE PRESTAKUNTZA ETA HOBEKUNTZA ERRAZTEN
BAITZIREN A MAILAKO EDO TALDEKO IRAKASKUNTZA LANPOSTUETAN.**

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, lege-aurreproiektu bat edo erregelamendu-proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat egingen da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Bestalde, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 21. artikuluan ezartzen duenez, Nafarroako administrazio publikoek argitara eman behar dituzte kontsulta publikoak, foru legeen aurreproiektuak eta erregelamendu proiektuak egin aurretik planteatzen direnak. Aurreikuspen horiek betez, herritarrek, erakundeek eta elkarteek, egoki iritziz gero, igor ditzakete planteatutako arau proposamenaren gainean dituzten ekarpenak. Ekarpenak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa da, argitaratu eta biharamunetik aitzina.

a) Konpondu nahi diren arazoak

Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 25eko 161/2001 Foru Agindua onetsi zenetik denbora luzea igaro denez, beharrezkoa da berrikustea ea elkarrekikotasunik dagoen irakaskuntza espezialitateen eta prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoera ekar dezaketen titulazioen artean.

Horregatik eta estatuko araudian egindako aldaketengatik, I., II. eta III. eranskinek ez dituzte barnean hartzen espezialitate guztiak, ezta, horren ondorioz, honetarako behar diren titulazio akademikoak ere: Hezkuntza Departamentura atxikitako B maila edo taldeko irakasle finkoak A maila edo taldeko irakaskuntza lanpostuetan sartzea prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoeraren adierazpena eginez, Bigarren Hezkuntzako, Musikako eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastiko eta Diseinuko irakasleen kidegoetako lanpostuetan, hain zuzen.

Horregatik, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 25eko 161/2001 Foru Agindua zati batean aldatzea proposatzen da, haren I., II. eta III. eranskinak berrikusteko, Bigarren Hezkuntzako prestakuntza espezialitate berriak kontuan hartuta.

b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.

- Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Agindu berriak irakasleak aldi baterako kontratatzeko arauak garatzen ditu, eta eranskinetan jasotzen ditu irakaskuntzan aritzeko eskatzen diren titulazioak. Hori dela eta, asmoa da hori izatea arau eguneratua, aukera emanen duena, prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoeraren adierazpena eginez, bai aldi baterako langileei, bai finkoei, irakaskuntza lanpostu berean aritzeko eskatzen zaien titulazio akademikoaren baldintzak parekatzea.
- Etorkizuneko eguneratzeetarako arintasun handiagoa ezarriko da, eta adieraziko da horiek gauzatuko direla kidego eta espezialitate berean aldi baterako kontrataziorako aurreikusten diren titulazio baldintzei helduz.
- Estatuko araudiak ezarritako aldaketen arabera eguneratuko dira, irakasleen kidego jakin batzuetako espezialitateen definizioari dagokionez.

c) Arauaren helburuak.

- Irakasleen profil eta titulazio akademikoak berrikustea, eguneratzea eta bateratzea, irakasle finkoak A mailako prestakuntzarako zerbitzu-eginkizunen deialdietara sar daitezen errazteko eta berraktibatzeke.
- “Nafarroako irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko Ituna” izeneko dokumentuan lortutako akordioak betetzen hastea. Itun horren bidez, Hezkuntza Departamentuak konpromisoa hartu zuen prestakuntzarako zerbitzu-eginkizunen deialdia berreskuratzeke.

d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Gaia araututa dago jada, eta, beraz, ezin da kontuan hartu arauemaile ez den konponbiderik, segurtasun juridiko handiagoa emanen lukeenik.